

PLaza

44 ■ Hamar urtetako zutabe hautatuak
Pako Aristik 'Egunkaria'-n eta BERRIAN argitaratu emandako zutabe bilduma kaleratu dute.



JACOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«Heldu den Nafarroako txapelketan izanen dute gu gabe lehiatzeko aukera»

ESTITXU AROZENA eta XABIER SILVEIRA Bertsolariak

G Puntuaren alderdi batzuekin kritiko dira Arozena eta Silveira, eta Bizkaiko txapelketari ere atzeman diote akatsik. Bertsoa ororen gainetik bestatzat daukatelako.

XAN HARRIAGUE
Lesaka

Estitxu Arozena (Mutriku, 1975) eta Xabier Silveira (Lesaka, 1976) 17 eta 15 urterekin hasi ziren Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzen. Geroztik bide ederra egin dute, eta bien artean herrialdeko zazpi txapel lortu. Nafarroako bertsolaritzan azken 15 urte hauetan izan diren aldaketan lekuko eta eragile nagusiak izan dira. Egoera egonkortzeko lan egin behar dela badiote ere, txapelketei dagokien, ez dituzte Gipuzkoako edo Bizkaiko ereduak segitu nahi. Txapelketak txapelketa, besta izaten segitu behar du, haien ustez.

Oroitzen al zarete Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehenaldiko aurkeztu zinetelarik?

ESTITXU AROZENA: Kanporaketa Sunbillan izan zen, eta gu gazte-gazte-

ak ginen. Oroitzen naiz horregatik eztabaida izan zela elkartean, batzuen ustez gazteegiak ginelako. Garai hartan, bertso eskolan ibiltzen ginen, eta gai gineela ikusi eta, batzuek txapelketan parte hartze-
ra bultzatu gintuzten. Kantatu genuen lehen aldi horretatik badago argazki bat aski esanguratsua, alde batetik, 60 bat urte izanen zitu-
en Madariaga, betiko txapelarekin, eta bertzetik, Xabier, bisera soinean.

XABIER SILVEIRA: Niretzat lehen txapelketa hori garai onean iritsi zen. Zalentzak ditut bertze hiruzpalau urte itxaron izan banitu bertsotan segituko ote nuen. Nafarroako bertsolaritza zihoan bidetik ez zitzaidan batera erakargarria egiten, eta denok dakigu 16 edo 17 urteko garaia ez dela izaten bizitza batean egonkorrena.

Garai hartako bertsolariek zer-nolako harrera egin zizuten?

X.S.: Oroitzapen ona dut. Hasieran zaharbatzuekin ibili nintzen, Arginarena anaiak, Madariaga anaiak, Fagoagatarrak eta Olano. Nahiko arraroa egiten zitzaidan, baina berriak ongi ikusten zuten norbait berria airtzea.

E.A.: Nik, maiz kantatu dut elkartea hastera bere garairik hoberenak

atzean utzi zituen Nafarroako bertsolaritzan, gainera bat neska. Kritika batzuk aditu behar izan genituen, baina gauza handirik ez. Batzuek zioten gaia eman eta sobera pentsatzen genuela.

Geroztik, nolakoan izan da bilakaera?

X.S.: Aldaketa handia izan da. Errate baterako, orduko ariketa batean, irakurritako lau oinekin, bertsoa bota behar genuen, baina Madariagak ez zuen sekula behar den bezala egiten. Hiru oin erabiltzen zituen eta bertzea ez, edo bukaerak aldatzen zituen. Batean ulertu nuen bada zer zuen. Nire ondoan jarri eta, honela erran zidan «ez baitakit leitzen». Gaur egungo bertsolaritzan ez da pentsatzen ahal ere. Saiok, berriz, herri kirolen ondorekin izaten ziren, edo meza ondoren. Ez zen ordutegirik. Horiek, agian, jakinen zuten meza noiz bukatzen zen, baina nik ez. Hala ere, gauzak laster aldatu ziren, garai hartan kontzertu erraldoiak egiten ziren, eta Nafarroan egiten bazen, gu han ginen. 17 urtetarako behin baino gehiagotan kantatu genuen 4.000 pertsonaren aitzinean, eta horrek aintz laguntzen du zure burua ezagutarazteko.

E.A.: Nik, maiz kantatu dut elkartea, otordu baten inguruan, adi-

bidez gaztetxeetan, omenaldietan, baita kontzertuetan ere. Badut oroitzapen hagitza ona Negu Gorriak taldearekin kantatzen. Plazaz plaza hastean, berriak ginen, eta gatzetasuna ekartzen genuen. Horregatik, erraza egin zitzaigun ezagun bihurtzea. Orain, aldiz, Nafarroako bertsolari gazteei gehiagokostatzen zaie.

X.S.: Gainera, 90eko *boom*-arekin bat gentozen.

Bertsazolei begira...

X.S.: Nik uste, hasi garenean, *Hitzetik hortzera*-k ematen zuen irudia eta mailak espektatiba handia sortzen zuela, baina ez zen nabari saio eta plaza arruntetan. Denbora batez jendeak ongi erantzun zuen, baina gero aspertu zen. Orain, aldiz, iruditzen zait gero eta jende gehiago mugitzen dela haien herrietan, edo ondokoan, bertso saio bat dagoelarik.

E.A.: Ez nago ados, ez dut uste maila kontu bat dela. Horrelako *boom*-a izan zen, eta gehiegi puztu zen, irrati saioak eta telebista saioak, bertzeak bertze. Herri kirolek talde batek ere bertso saioa antolatu zuten dirua lortzeko. Ez zen ekitaldirik bertsolaririk gabe. Azkenean, gehiegi puztzen diren gauza guztiak bezala, agortu zen, jen-

dea nazkatu zelako. Zuk diozun bezala, orain maldan gora doa, baina molde naturalago batean. Gero eta bertso eskola gehiago daude. Jendeak hobeki ezagutzen du, eta hurbileko gauza da.

15 urte hauetan bertze aldaketarik sumatu al duzue?

X.S.: Galetan. Gizartean izan den aldaketa bera. Baserri mundu batek hiri mundu batera pasatu gara. Erreferentziekin gauza bera pasatu da. Gaur egun, bertsolaritza mundu mailan oinarritzen da, lehenago tokiko istorioetan zen.

E.A.: Gaiak baino gehiago, horiei buruz kantatzen dena aldatu da. Nekazaritzaren kasuan, adibidez, orain globalizazioa aipatzen da gehienbat.

2000tik 2003ra Amets Arzallusek, lapurtar batek, irabazi zuen txapelketa. Nola bizi izan dituzue urte horiek?

E.A.: Lapurtarrek Nafarroako Txapelketan parte hartzearena Jesus Arzallusen garaitik etorri zen, ez baitzuen Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko bertze biderik. Aitortu behar da giro gatazkatsua izan zela. Lan guziaz hemen egiten zen, eta diru guziaz ere hemendik ateratzen. Azkenean, Amets Arzallusek irabazteak kaltea egiten zion Nafarroako bertsolaritzari. Ordura arte besta bat zena, bi taldeen arteko lehia bihurtu zen. Ez nuen ongi bizitu, ez bertsolari gisa, baizik eta Nafarroako Bertsosaleen Elkarteko langile eta kide gisa. Azkenean, bakarrik nafarrak onartzea erabaki zen. Geroztik denborak erakutsi digu egokia izan zela, bai guretzat, baita Iparraldeko bertsolaritzarentzat ere.

X.S.: Hala ere, Sustrai Colina eta Amets Arzallus ibili ziren garaian, eskakizun maila igo zen, eta berriak agertu ez balira, Nafarroako bertsolaritza marxta tikiagi batean garatuko zen. Alde horretatik mesede egin ziguten.

Hala ere, ez al duzue uste Mixel Mateo, Patxi Iriart eta halako bertsolariek Nafarroako txapelketan parte hartu beharko luketela?

E.A.: Bertsosaleen Elkarteko egiturari, Nafarroa Beherea Iparraldeko elkartean dago, eta lehenbiziko, haiek erabaki beharko lukete.

X.S.: Politikoki hagitza ongi ikusiko nuke, baina Nafarroa Beherea kendu eta, Lapurdi eta Zuberoa bakarrik geldituko lirake.

Nola ikusten duzue zuen gibeletik bultzaka ari den belaunaldia, Jon Barberena, Julien Zalaieta eta Julio Soto, bertzeak bertze?

X.S.: Ez dakit, heldu den txapelketan izanen dute gu gabe lehiatzeko aukera. Horietariko bat izanen da txapelduna, eta bertze bat txapeldunordea. Espero dut aukera ez dutela alferrik galduko haien burua ezagutarazteko, eta ondotik, plaza gehiago egiteko.